



GALINDEZ, ASKATASUNAREN ALDEKO BORROKALARIA

NEW YORK, 1956

MISSING

POLICE DEPARTMENT

CITY OF NEW YORK
NEW YORK 19, N. Y.
MFD - 5254 -



MISSING

ASKATASUNEN ALDEKO
BORROKALARIA
NEW YORK 1956
(COMM-FBI)

JESUS DE GALINDEZ

MISSING since 10.30 P.M. March 18th, 1956, last time seen when subject was to take subway from 57th Street & 8th Avenue, to his home at 30 Fifth Avenue, New York, N.Y. Subject is described as a white male, 41 years of age, 6'1", 160 lbs., slim build, fair complexion, light brown hair (slightly bald in front), brown eyes, good teeth; may be wearing a dark grey overcoat with belt in back and grey-green fedora and was carrying a dark brown briefcase. Subject is a lecturer in International Law and Spanish at Columbia University, New York, N.Y. Special attention to all hospitals. Any information call Missing Persons Bureau CAnal 6-8000.

GALINDEZ



Euskal Museoa Museoa Vasco

2006ko maiatzaren 17tik ekainaren 14ra
Del 17 de mayo al 14 de junio de 2006

Orduetgia-Horario
10:00-14:00
17:00-19:00

Larunbata eta jaiegunetako arratsaldeetan itxita
Sábados y festivos cerrado por la tarde

EUROPEAN
sabino
arana
fundazioa



Euzko
Jaurlaritzaren
Erakundeak
museoa

eitb

radioeuskadi



JESUS DE GALINDEZ
GALINDEZ ETA POLITIKA

17 urte besterik ez zituela Euzko Alderdi Jeltzaleko bazkide egin zen. 1936an, 21 urte eskas zituela, eta Gerra Zibila hasi eta berehala, boluntario gisa lan egiteko aurkeztu zen Euzko Jaurlaritzaren Madrileko Batzorde-Ordezkaritzan, zeinen eginkizuna Madrilen bizi ziren euskaldunei laguntzea baitzen.

Handik hilabete gutxira Manuel Irujo euskal ministroak Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiko Letratu Aholkulari aukeratu zuen; 1937ko irailaren azken aldera Euskal Piriniar Bataioiaren 142 Brigadan sartu zen, Ofizial Juridiko Militar zereginetan eta infanteriako teniente graduarekin. 1939ko otsailaren 10ean Frantziako muga zeharkatu zuen, eta hor hasten da Galindezen erbeldaldia.

1940an Dominikar Errepublikarako Euzko Jaurlaritzaren Ordezkarri aukeratu zuten. Kargu hori 1946an utzi zuen Nazio Batuetako Euskal Ordezkaritzan parte hartzeko garrantzi benetan bereziko unea batean. Nazioarteko zuzenbideaz zituen ezagutzek eta negoziatzeko dohainek giltzari bilakatu zuten, urtetan Francoren erregimena nazioartean isolatzea lortu zuen estrategian.

Galindezen estrategia izan zen, Gerra Hotza bete-betean zela, UNOKo erresumak konbentzitzea Estatu espainolarentzako irtenbidea ez zela, ez Franco ez komunismoa "sino la democracia y el respeto a la voluntad de los pueblos" baino.

1949an Jose Antonio Agirrek Estatu Batuetako Euskal Ordezkarri eta Nazio Batuen aurreko Euzko Jaurlaritzaren Behatzaile izendatu zuen. Estatu Batuen Estatu Departamenturako sarbide zuzena zuen eta, 1956an bahitu zutenean, ordurako Estatu Batuetako Alderdi Demokratiko kide zen.

Gainera, erbesteko Euzko Jaurlaritza finantzatzeko euskarrietako bat izan zen. Ameriketako euskaldunen koloniaren dohaintzez gain, erbesteko Euzko Jaurlaritzaren gastuen zati bat ordaintzeko sarrerak ekarri zituen sistema ere kontrolatzen zuen: Europara dibisak bidaltzeko sistema.

GALINDEZ ETA KULTURA

Galindezen kultur ibilbidea benetan itzela izan zen. 18 argitalpenek, beraren "Trujilloren Garaia" doktore-tesia barne, egunkari eta aldizkarietan idatzitako ehunka artikuluk eta Latinamerika guztian zeharreko dozenaka solasaldi eta hitzaldiek edo irriti-saiok Euskadiren historiako intelektualik oparoenetako bat bihurtzen dute —41 urterekin bahitu zuten—. Sarri idazten zuen "Excoélsior", mexikarerrako; Uruguako "El Dia"rako; Caracasako "El Universal"erako; "El Comercio" peruarerrako, "El diario de Nueva York"erako, edo Bogotako "El Tiempo"rako. Euskal erbesteko argitalpen guztietan egiteaz gain.

ASKATASUNEN ALDEKO
BORROKALARIA
NEW YORK 1956
(COMM-FBI)

GALINDEZ Y LA POLÍTICA

Con tan sólo 17 años se afilia al Partido Nacionalista Vasco. En 1936, con apenas 21 años, y nada más comenzar la Guerra Civil, se presenta voluntario a trabajar en el Comité-Delegación del Partido Nacionalista Vasco en Madrid, que tenía como misión ayudar a los vascos que residían en Madrid.

Unos meses después, el ministro vasco Manuel Irujo le nombra Letrado Asesor de la Dirección General de Prisiones. A finales de septiembre de 1937 pasa a formar parte de la 142 Brigada Vasco-Pirenaica, como Oficial Jurídico Militar, con el grado de Teniente de Infantería. El 10 de febrero de 1939 cruza la frontera con Francia y comienza su exilio.

En 1940 es nombrado Delegado del Gobierno vasco en la República Dominicana. Cargo que abandonará en 1946 para formar parte de la Delegación vasca en las Naciones Unidas en un momento de especial trascendencia política. Sus conocimientos de derecho internacional y sus dotes como negociador le convirtieron en una pieza clave de la estrategia que consiguió aislar internacionalmente durante años el régimen de Franco.

Su estrategia fue la de intentar convencer a los países de la ONU, en plena Guerra fría, de que la solución para el Estado español no era ni Franco ni el comunismo, "sino la democracia y el respeto a la voluntad de los pueblos".

En 1949 José Antonio Agirre le nombra Delegado Vasco en los Estados Unidos y Observador del Gobierno vasco en las Naciones Unidas. Tenía acceso directo al Departamento de Estado de los Estados Unidos y cuando fue secuestrado en 1956 formaba parte ya del Partido Demócrata estadounidense.

Además, fue uno de los pilares sobre los que se sustentó la financiación del Gobierno vasco en el exilio. Junto a las donaciones de la colonia vasca en América, Galindez controlaba un sistema de envío de divisas a Europa que proporcionó ingresos para sufragar parte de los gastos del Gobierno vasco en el exilio.



Ahaztu barik, bai bere lagunei, bai, Euskal Ordezkarri zereginetan Euzko Jauriaritzari idatzitako milaka gutun pribatuak. Oso garrantzitsua izan zen, halaber, Zuzenbideari eta, bereziki, Foru Zuzenbideari, Nazioarteko Zuzenbideari eta Lan Legeari egin zion ekarpena. Jesus Galindezen "Trujilloren Garaia" doktore-tesiak, zein bera irakasle zen New York-eko Columbiako Unibertsitatean aurkeztu baitzen, gure pertsonaiaren beste alderdi bat agertzen du: latinamerikar historiaren hedapenari egin zion ekarpena. 1952an Latinamerikari buruzko Estatu Batuetako 20 "top experts" edo aditu nagusien zerrendan sartu zuten.

GALINDEZ ETA EUSKAL INFORMAZIO-ZERBITZUAK

"El informante confidencial DR-10 - es franco al asegurar que prefiero informar sobre los alemanes y otras actividades de las fuerzas del Eje, que sobre las actividades comunistas. Se siente abatido desde que tiene que contactar con los comunistas españoles en la República Dominicana". FBiren 1944ko ekainaren 10eko txostena

1941etik, II. Mundu Gerra zela, Agirre lehendakariari aliatuen, zehazki Estatu Batuen, agindupean ipini zituen euskal informazio-zerbitzuak. Gerra Zibila hasi aurretik sortu zirelarik, Euskal Informazio Zerbitzuen euskarria euskal itsasgizonak eta munduan zehar barreiatutako euskal kolonia ugaria ziren. 1944an Euskal Informazio Zerbitzuak Estatu espainolean eta Frantzian ez ezik, Mexikon, Dominikar Errepublikan, Kuban, Panaman, Venezuelan, Kolonbian, Perun, Txilen, Argentinan eta Uruguain ere baziharduen. Hamarnaka euskal

herritar aliatuen zerbitzura jarriko dira, herrialde bakoitzeko Euskal Ordezkariri koordinaturik, mundu guztian, baina, batez ere, Latinamerikan zehar, guda-talde nahiz espioi eta pertsona nabarmen nazi zein japoniarren mugimenduen gainean informatzeko. Handik hilabete batzuetara, Estatu Batuar gobernuak, FBiren bitartez, erbestera komunisteri buruzko informazioak ere eskatuko ditu.

Jesus Galindezek DR-10, Rojas eta NY-507-S kode-izenekin lan egingo du, eten gabe, Iparramerikar Zerbitzu Sekretuentzat Jose Antonio Agirrek aginduta.

1946ra arte Dominikar Errepublikan lan egingo zuten Ciudad Trujilloko enbaxadako iparramerikar agregatu militar eta legalen "agente" gisa. Eta 49tik eta desagertu arte, "ezinbesteko" agentetzat edukiko zuten FBik berak, Euskal Ordezkaririk New York-eko lkerketa Bulego Federalari ematen zizkion informazioengatik, zeintzuk, FBiren beraren iritziz, ezin baitziren beste inolaz ere lortu.

GALINDEZ ETA FBI

1956ko martxoaren 12an Trujillorentzat lan egiten zuten mertzenario-talde batek Jesus Galindez bahitu zuten beronek Bosgarren Etorbideak zuten apartamentuan. Trujillok ordurako asasinatuak zituen hamarnaka mila erbestera Kontinente guztian zehar, New York-en eta Kuban, batez ere, herrialde horietan baitzeuden diktadorearen aurkari erbesteturik gehienak. Estatu Batuek babestu eta losintzatzen zuten diktadore hura, CIAk lagundua, gero ere erori egin zen Galindezen bahiketak eta asasinatzeak eragindako nazioarteko aldarri eta gaitzespenaren ondorioz. Ezta eleberririk beltzik onena, ez kontaketa politikorik intrigazkoena dira gauza 1956ko martxoaren 12an eta hurrengo egunetan gertatu zena gainditzeko. Trujillok ez zekien Galindez FBiren agente bat zela eta hobekien baloratuenetakoa, gainera. Ezta agentzia horrek, Hoover ahalguztidunaren agindupean, isilpean haren bahiketa ikertzea aginduko zuela ere. Milaka eta milaka folioak osatzen

dute FBiren ikerketa: 1956tik 70eko urteetara arte. Ez zuten inolaz kondenatu, ez epaitu ... John Joseph Frank izan ezik, baina Dominikar Errepublikaren agente gisa jarduteagatik erregistratuta egon gabe.

FBiren arabera, Trujillok milioi bat dolar, 1956koak, gastatu zituen bahiketa antolatzen. Eta beste zazpi milioi, berak bahiketaren parte hartu izana publikizateko, propaganda, eroskeria eta asasinatzeen bitartez ezkutatzeko saiatzeko. Diru kopuru astronomikoa, benetan. Diru horren zati bat, FBik egindako ikerketatik ondorioztatzen denaren arabera, politikariak eta iparramerikar gizarteoko pertsona nabarmen zenbait erosten inbertitu zen, Euskal Ordezkariren bahiketaren oihartzunak isilarazi guran, hain zuzen. FBik berak ere 1959an onartu zuten, sasoi hartan 300.000 dolarretik gora eraldi zituela Jesus Galindezen bahiketa ikertzeko lanetan. Ikerketan, nola edo hala, agentiaren 47 bulegok parte hartu zuten.

Galindez kasuaren ondorioek Trujillo eta bere erregimena eraitsi zuten. 1961ean Octavio de la Mazaaren anai batek hil zuten Trujillo. Octavio de la Maza Galindezen bahiketaren parte hartu zuten dominikar militarretako bat izan zen eta Trujillok asasinatu zuten Euskal Ordezkariren bahiketarekiko lotura ezkutatzeko.



GALINDEZ Y LA CULTURA

Su trayectoria cultural fue inmensa. 18 publicaciones, incluida su tesis doctoral La Era de Trujillo. Cientos de artículos en periódicos y revistas, y decenas de charlas y conferencias o programas de radio por todo Latinoamérica le convierten en uno de los intelectuales más prolíficos - fue secuestrado a los 41 años- de la historia de Euskadi. Colaboraba asiduamente con el "Excelsior" mexicano, "El Día" de Uruguay, "El Universal" de Caracas, el peruano "El Comercio", "El diario de Nueva York" o "El Tiempo" de Bogotá, además de en todas las publicaciones del exilio vasco. Sin olvidar las miles de cartas privadas que escribió tanto a sus amigos como al Gobierno vasco en cumplimiento de su función de Delegado vasco.

Su contribución al Derecho y en particular al Derecho Foral, al derecho internacional y a la legislación laboral fue también muy relevante. Sus tesis doctoral, La Era de Trujillo, presentada en la Universidad de Columbia en Nueva York, de la que era profesor, revela otra de las facetas de Jesús de Galindez: su contribución a la difusión de la historia latinoamericana. En 1952 era incluido en la lista de los 20 "top experts" (principales expertos) sobre Latinoamérica en los Estados Unidos.

GALINDEZ Y LOS SERVICIOS VASCOS DE INFORMACIÓN

Desde 1941, en plena II Guerra Mundial, el Lehendakari Aguirre pone los servicios de información vascos a las órdenes de los aliados, y en concreto de los Estados Unidos. Creados antes de finalizar la Guerra Civil, los Servicios Vascos de Información se sustentaban en los

marinos vascos y la numerosa colonia vasca repartida por el mundo. En 1944 el Servicio Vasco de Información operaba, además de en el estado español y en Francia, en México, República Dominicana, Cuba, Panamá, Venezuela, Colombia, Perú, Chile, Argentina y Uruguay. Decenas de ciudadanos vascos, coordinados por el Delegado vasco en cada país, se pondrán al servicio de los aliados para informar sobre los movimientos de tropas o espías y personalidades nazis o japonesas en todo el mundo, pero fundamentalmente en Latinoamérica. Meses después, el Gobierno norteamericano, a través del FBI, pedirá también informaciones sobre exiliados comunistas.

Bajo los nombres en clave de DR-10, Rojas y NY-507-S trabajó de manera ininterrumpida por orden de José Antonio Agirre para los Servicios Secretos Norteamericanos.

Hasta 1946 trabajaría en la República Dominicana como "agente" de los agregados Militar y Legal norteamericanos de la embajada de Ciudad Trujillo. Y desde el 49 hasta el día de su desaparición sería un agente considerado como "imprescindible" por el propio FBI, gracias al tipo de informaciones que el Delegado suministraba a la Oficina Federal de Investigación de Nueva York, y que según el propio FBI no podían conseguirse por ningún otro conducto.

GALINDEZ Y FBI

El 12 de marzo de 1956 un grupo de mercenarios al servicio de Trujillo secuestra a Jesús de Galindez en Nueva York, en su apartamento de la Quinta Avenida. Trujillo ya había asesinado a decenas de exiliados por todo el continente, especialmente en Nueva York y Cuba, lugares en donde se asentaban sus opositores en el exilio. Un dictador protegido y mimado por los Estados Unidos, apoyado por la CIA, pero que sucumbió ante el clamor y repulsa internacional que causó el secuestro y asesinato de Galindez.

Ni la mejor novela negra, ni el más intrigante relato político son capaces de superar lo que ocurrió entre el 12 de marzo de 1956 y los días siguientes.

Trujillo no sabía que Galindez era uno de los agentes mejor valorados del FBI. Y que esta agencia, bajo las órdenes del todopoderoso Hoover, ordenaría investigar, en secreto, su secuestro. Decenas de miles de folios componen la investigación del FBI, desde 1956 hasta mediados de los años 70. Nadie fue condenado, ni juzgado... a excepción de John Joseph Frank, pero por actuar como agente de la República Dominicana sin estar registrado.

Según el FBI Trujillo se gastó nada menos que un millón de dólares de los de 1956 en organizar el secuestro. Y otros siete millones más en tratar de ocultar mediante publicidad, propaganda, sobornos y asesinatos su participación en este secuestro. Una cantidad astronómica de dinero. Una parte de ese dinero, según se desprende de las propias investigaciones del FBI, se invirtió en sobornos a políticos y altas personalidades de la sociedad norteamericana para tratar de acallar las repercusiones del secuestro del Delegado vasco.

El propio FBI reconocía en 1959 haber gastado ya en esa época algo más de 300.000 dólares en la investigación del secuestro de Jesús Galindez. Una investigación en la que, de una u otra forma, habían tomado parte 47 oficinas de la agencia.

Las consecuencias del caso Galindez acabarían con Trujillo y con su régimen. En 1961 Trujillo era asesinado por un hermano de Octavio de La Maza, uno de los militares dominicanos que tomaron parte en el secuestro de Galindez y que fue asesinado por Trujillo para tratar de ocultar su relación con el secuestro del Delegado vasco.

